

Aurten bai, Zeanuri Bizkaiko herriarteko txapeldun

Urte biz jarraian egon dira Markina eta Zeanuri aurrez aurre Bizkaiko Herriarteko Txapelketako finalean eta hirugarrenean bai, Zeanuriko pelotariak ekarri ditue txapelak. Bikoteka Gotzon Erkiaga, Jon Beitia, Liher Beobide, Auritz Gortazar, Anton Erkiaga eta Bingen Beitiak finaleko hiru partiduetatik bi irabazi ebezan .Euskal Herriko finalaurrekoan baina, kale egin eben Hernaniren kontra. **10. orrialdea**



Areatza eta Zeanuriko jaiak datoz abuztuan



Zeanuriko Andra Mari jaiak izango dira lehenengoak, aurten hiru egunekoak baino ez, abuztuaren 14tik 16ra. Areatzan barriz, zortzi egunez murgilduko dira jaietan, abuztuaren 23tik 30era ospatuko dira sanbartolomeak. Zeberioakoak berandutxoago hasiko dira aurten, urri lehenengoaren 2an, hain zuzen be. **5. eta 7. orrialdeak**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Eguzki eklipse total historikoa gurean

Gutariko inork bertan ikusi ez dauan eta 2183. urtera arte errepetituko ez dan eguzki eklipse totalaz gozatzeko aukerea izango dogu gurean abuztuaren 12an. Ilargia 19:30ak aldera hasiko da Eguzkiaren aurretik pasetan eta berau, 20:27an ostenduko da guztiz. **5. orrialdea**

ARRATIA, ZEBERIO

Auzoetan be hamaika jai

Bedia, Lemoa, Zeanuri eta Zeberion San Lorentzo edo sanlontzoak, Igorren eta Zeberion Andra Mari jaiak, Bedian eta Diman San Roke, eta Zeberio eta Igorren San Bartolome dira gure auzoetako ermiten inguruan abuztuan zehar ospatuko diran jaietako batzuk. Ikusi BEGITU jai honeen egitarau guztiak. **12. orrialdea**

ARRATIA

Arratia, Ubide eta Zeberioko ondare erlijiosoa katalogauta

Bilboko Eleiz Museoak argitaratu dau gure herrietako Monumentuen Katalogoa eta hau osorik bisitatu daiteke catalogomonumentaldiocesis-bilbao.com webgunean. Lana Zeanurin aurkeztu eben Karlos Olabarri Arratiako abadeagaz, Raquel Cilla Eleiz Museoko zuzendariagaz, Joseba Segura gotzainagaz eta Elixabete Etxanobe Ahalhun Nagusiagaz. BEGITU, aurkezpenaren kronikea zein gure ermita eta eleizetan aurkitutako pieza bitxietako batzuk batu doguz. **8. eta 9. orrialdeak**

30 urte

✓ EGOITZA
✓ EGUNEKO ZENTROA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

ARRATIAKO EGOITZA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA

Gizarte- eta osasun-arreta jarraitua eta pertsonalizatua

IBARRA AUZOAK, 17 DIMA

94 631 57 76

ARRATIAKO EGOITZA

Literatura txokoa

ODISEA

Odisea izango da zalantza barik — *Bibliaz* aparte— antxinateko libururik ezagunena. Bere baitako kontakizunak espora moduan zabaldu dira Europa osoan zehar, Mendebaldeko literatura eta mitologiaren zuztar bihurtzeko. Ez al da ba Tartaloren mitoa 'Ulises eta ziklopearen istorioaren euskal bersinoa? Eta ez al da egia be mundu guztiak ezetuten dabezala istorioaren pasarteak —sarritan liburua irakurri be egin barik— kultura herrikoiaren parte bilakatu diralako? Eta oin euskaldunok badaukogu primerako itzulpena, Matias Mugikak bertso edo neur-titzetan euskeratu daualako, poema epikoaren forma errespetauz holan eta testuaren edertasunari eutsiz. Holan gustura murgilduten da irakurlea Aro Mizenikoko mundu

honetan, zeinetan jainkoek idazten daben gizonen patua eta, horrexe-gaitik, baretu egin behar dira idiak sakrifikauz hekatonbean honeen odola eta koipea eskaintzeko; mun-du bat zeinetan erregeak piraten moduan uriak harpilatu eta euren biztanleak esklabo bihurtzen dabezan, baina, aldi berean, izugarri es-kuzabalak diran bidaiariakaz, abegi ona sagradua dalako; mundu bat zeinetan itsasoa dan bide nagusia eta zeinetan mota guztietako pertsonaia mitologikoak personak bezain errealak diran. Eta mundu honetan, Peneloperen negarrak, Telemakoren arrangurak eta Ulisesen lan latzak etxera bueltetako. Ulises, mila amarruko gizona, Troiako zaldiaren asmatzailea, gerratik bueltan oindino abentura gose da, eta holango baten, Polifemo ziklopea itsututen dau. Baina ziklopea Poseidonen semea da, itsasoe-

tako jainkoa, eta honek, haserre, heroia madarikatuko dau. Honen ondorioz, itakarrak alderrai ibili be-harko dau itsaso zabalean arrisku ikaragarriei —munstroak, lotofagoak, itsaslaminak, Zirze sorgina, etab.— aurre eginaz, etxera bueltetako bi-dea topau ezinik. Bere noraezean Hades edo hildakoen lurraldetik be pasau beharko dau. Abentura fantastiko honeetako gehienak eta Troiako zaldiarena *flashback* bidez kontetan jakuz, narrazioak dira na-rrazino nagusiaren barruan, poema epikoak bidaiaren azken berrogeta bat egunak hartzean dabezalako ardatz, Ulisesek Kalipso ninfaren uhartetik alde egiten dauanetik, mendeku odoltsu baten ostean, Itakako tronuan bere lekua berres-kuratzen dauan arte. Bien bitartean, etxean be ez da bakerik: jauregia Penelope bertutetsuagaz ezkondu gura dauan senargaiez bete da, eta

honeek Telemako semea akabe-tako planak egiten dabez, Ulisesen ganaduagaz tripa bete eta ardaoa-gaz mozkortzen diran bitartean. Ez da harritzekoa, beraz, men-deetan zehar irakurleak plazerra bilatu izana *Odisearen* orrialdeetan, bertan drama latza, abentura fan-tastikoak, mendekua eta mitologia buztartzen dira-ta. Gainera, Ulises ohiz kanpoko heroia da, oso gi-zatiarra: okertu egiten da, negar egiten dau eta batzutan pasinoek menpean hartzean dabe. Erregea, itsasgizona eta bandidoa aldi be-rean, bere armak guzurra, mozorroa eta amarrua dira. Horregaitik, garai batzutan, ez zala eredu ona eta, ez da izan eliteen gustukoa; baina hain indartsua eta ederra da olerkia kultura unibersalera pasau dala ha-landa be. Eta oin, atzenean, euskal irakurlearen eskuetara heldu da lu-jozko edizinoan. * ¹ Izenaren aldaera posibleetatik, Odiseo, Oulixes, Olyseus... Ulises aukeratu dau itzultzaileak.

Ekaitz Zabala



Homerori egotzia. Itzulpena: Matías Múgica

Odisea

Balea Zuria argitaletxea, 2025

504 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112
Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Abuztuaren 3tik 9ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937
22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya (1-7). Amorebieta-Etxano.
Abuztuaren 10etik 16ra
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057
22:00etatik 09:00etara
Melero (8-14). Amorebieta-Etxano.
Abuztuaren 17tik 23ra
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Sarasketa (15-21). Amorebieta-Etxano.
Abuztuaren 24tik 30era
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937
22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga (22-28). Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Gometza, Ana. Francisco Kortabarría 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87
Medikuak
Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,

Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17
Zeberio: 94 500 67 95
Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79
Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net
Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota 688 854 543 / info@erota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.
Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.
A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.
Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60
6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoien eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.
6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoien eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

* Adi udako ordutegia

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Araitz Zapiko (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Xabier Gorostiaga (Arantzazu, Areatza eta Artea) Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Instagram:** @begitu.eus. **Mastodon:** @begitu. **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Bizikidetza arazoak

2025. urteko Igorreko jaietan hasi zan gure etxebizitzetan deskantsetea gero-ta gatxagoa egiten. Kirikiño tabernak kontzertu bat antolatu eban kalean, hau obretan egonda, eta leihoak dardarka hasi ziran. Gero etorriko zanaren seinale, Ertzaintzari deitu jakon baina ez zan agertu eta Igorreko Udalari abisua emon jakon, baina ez zan neurririk hartu.

Oin astegoienero errepikatuten dira antzeko egoerak: musikea topera, droga usaina, burrukak, portalearen atean zein garajearen atean aulki eta mahaiak... Lehendakari Agirreko 27. eta 29. portaleetako etxebizitzetan sortzean diran molestiez gainera, kalean be eragozpenak sortzean dira kotxeentzako zein gurpil-aulkietan doazan auzokoentzako. Atzenengo Igorreko jaietan heldu zan arriskutsuena. Ez daukie kozinetako baimenik, baina baebizan eta lapiko bat lehertu zan, 29. portaleko alarma be

martxan ipinita. Zer egin eban? Jarraian zarratu eta alde egin.

Ertzaintza eta Udalaren neurri faltea zala-ta, geu be izan gara zuzenean Kirikiñoko jaubeari kexatuten joan garanak baina bere lehenengo erantzuna da terrazarako, sukalderako eta musikarako baimenak badaukazala, guzurr. Bigarren erantzuna, auzokideak mehatxatutea izan da eta gutako nonor jarraituten be ibili da kaletik.

Oin, Igorreko Udalak lege-diak zehaztutako neurriak beteteko eta terrazarako baimenik ez daukala gogorazoteko oharra bialdu deutso Kirikiñoko arduradunari, baina danak bardin segidu dau eta terrazea hor dago. Ertzaintzak egoerea ikertuko dauala be badino, baina ikusiko da ondoriorik badagoan.

Gure etxeetan bizi eta deskantsetako eskubidea baino ez dogu eskatuten.

LEHENDAKARI AGIRRE 27
ETA 29 PORTALEETAKO
AUZOKIDE BATZUK

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, [berituk](mailto:berituk@berituk.eus) eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: berituk@berituk.eus helbidera.

ALKARREGAZ

Goikogana Hirugarren
Adinekoen Elkartea

Goikogana Ubideko Hirugarren Adinekoen Elkartea 1987ko abenduaren 6an sortu zan Ubiden. Alkartearen ibilbidea 64 bazkidegaz hasi zan, Rosario Abasolo lehenengo lehendakaria izanaz.

Gaur egun 38 bazkide gara Goikogana alkartean, 14 gizon eta 24 andra.

Gure lokala “txoko” moduan erabilten dogu eta edozein bazkidek hau erabili nahi izan ezker, giltzak eskatuteko aukerea dauka, lokala erabilteko; hori bai, beti erantzukizunez. Atzenengo urtean alkartearen instalazioak barritzut egin dira, Foru Aldundia eta Udalaren laguntza eta finantziazioagaz. Lokala erabilteaz gainera, urtean zehar hainbat ekintza desbardin antolatuten dira, euren artean txangoak, bazkariak eta museoetara bisitak.

ERETXIA

Atea zarratuta
egoan

“Sobreseimiento provisional de la causa”, berba arruntagoetan esanda, gure salaketea artxibau egin da.

Eraso sexualetan espezializautako profesionalak gomen-dauta salaketea ipini genduan. Hori egin behar genduan, guraso moduan. Zalantzak geunkazan baina egin behar gendualaz konbenzidu ginan.

Salaketea ipintera lagundu euskuen, bai fisikoki, psikologikoki eta juridikoki be.

Gure salaketea ez zan desestimau, ikertu behar zala ebatzi eben bai fiskaltzak bai epaileak.

Ikerketa fasean gure familiari azterketa psikosozial bat egin eta zazpi persona deklaratzera joan ostean, amaitu egin da, epaileak epaiketara ez joatea erabaki dau.

Umeen kontrako eraso sexualen kasu askotan bezala, ez dago proba handirik, hori gertatzen ohi da, testigantza bat bestearen kontra da, gehiagorik ez dago. Pena bat.

Honetarako prest gengozan, prestatu ginduezan: guk salaketea ipini jagokon lekuan eta ostean gertatuko dana, ez dago gure esku, ez dogu guk ebazten, onartu eta listo. Hasi-keratik esan euskuen eta horretan gengozan.

Akabo prozesu luze eta korapilatsu hau. Zenbat gauza esateko baina ezin esan doguzanak, barriro be gure burua babestu behar dogulako.

Lasai gagoz, pozik, egin behar genduana amaitu dogulako, oin hau ahaztu eta listo.

Triste be bagagoz. Lehenengo, gure alabeari egun horretan egin eutsienagaitik noski, egin eutsanak zigorrik izango ez daualako bigarren, baina bide luze honetan jaso ez dogun laguntzea... espero ez genduan sopsresea izan da. Oso mingarria, ez genduan espero, benetan ezetz, babestu daben per-

SEXU ERASOA
SALATU DAUAN
IGORREKO FAMILIA

sonak... zelango kolpea. Erdian ipini beharrean, ez alde batera ez bestera, gure kontra egin dabe, nor gagoz babesten? Eta nor ez gagoz babesten? Pentsatzekoa da... guretzako ulertezina oindino be.

Gauzak ondo egin doguz, lasai, berba egiteko prest, entzuteko prest. Laguntza eske joan gara beti, leku batera eta bestera, baina erantzunak: “Ez da posible, ez dot sinisten, ziur al zagoze?”, “Gai oso delikaua da, agian gertatu da baina ez hemen, salaketeagaz min handia egin ahal dozue”...

Baina zelan imajinauko dau ume txiki batek eraso sexual bat sufridu dauala? Zelango imajinazinoa da hori? Baina

zelan sartuko gara gu holango mobida baten ziur ez bagagoz? Zer irabazi dogu?

Esango deutsuet. Ezebez, mina, desilusinoa, tristurea... Holango salaketa bat ipintea ez da bape erraza, esperientzia oso desatsegina da, kontetea, galderak erantzutea, balorazino personalak jasotea, deklarazinoetan entzun behar diranak...

Gizarte moduan gaiagazko irmotasun falta handia sentidu dogu, bidean kobardia askogaz egin dogu topo behin eta barriro.

Andra eta umeenganako biolentziaren kontra jarduteko, egiteko zenbat lan falta dan ikusi dogu, ausardia behar dogu, bai norbanakoa eta baita enpresa, instituzino eta talde guztiena be. Ez da nahikoa zapi morea zemendiaren 25ean ipinteagaz.

Protokoloak egin, beteten dirala egiaztatu eta zorrotzak izatea, beti be deliturik egin barik noski, zuhurtasunez. Posiblea da eta egiten da, beraz, hemendik, gure esperientziagaitik, mesedez, ipini gaitzean lanean, eregi daiguzan etorkizunerako bideak, esan daigun ozenki andra eta umeenganako biolentziak ez doguzala inolaz onartzen, faborez.

Agur esatera goaz, pozik eta triste egoteaz gainera, apur bat haserre be bagagoz, parkatu formak.

Ondo amaituteko, eskerrak emon behar doguz, lagundu gaituzuen guztiei baina batez be eta bihotz bihotzez, alkarte biri eta hor barruan dagozan personei eskerrak emon gura deutseguz: Bizkaiko Foru Aldundiko eraso sexualen biktimak laguntzeko zerbitzuari, zer egin behar genduan ez genkian lehenengo momentu horretatik gugaz sentidu doguz eta Bidaure alkarteari, gure salaketearen barri izan ebenetik, bildur barik laguntza eskaintzen ibili diranak, zoragarriak zarie!

Zuek bai ausartak! Mila esker eta agur!



LUMATUTEN



SORAYA LIZUNDIA

Ipuinak

Memoria ariketak egitea oso ona ei da burua aktibo mantenduteko. Ariketetako bat operazino matematikoak egitea izan ahal da, beste bat egunkaria irakurri edo irratia entzun eta irakurritakoa edo entzundakoa batenATEGAZ konpartidutea. Beste ariketa ona da garai zaharrak gogoratzea eta bizi izan ziranakaz partekatzea, horrek merezi daben balioa emoten lagun-tzen dau.

Ahizta nagusiagaz komen-tau dot umeak ginaneko ohe-ra joan orduko aitagaz emoten genduzan atzen momentuak. Noizean behin ipuina konte-tako eskatzen geuntsan eta ipuin bera kontatzen euskun beti, berak asmatutakoa, bere bizipenetan oinarritutakoa agian: “Bazan behin oso po-brea zan umea, berotzeko aukerarik ez eukana negu gorrian eta horregaitik basora joan behar zan egur apur bat

batzera, egur sorta lortuta etxerako bidea hartu eta hara, guardia zibilak non agertzen ziran kontuak eskatzen eta egurra kentzean...”. Istorioa ez zan inoz puntu haretatik ha-rago joaten ze, ama agertzen zan “umeak ohera” esanaz eta akabo. Oin, ipuinaren amaie-raz galdetuta ez dot uste aita gogoratuko danik.

Ipuinetan sartuta, lagun ba-tek esandakoa ipuin modura kontauko dot. Behin baten, herri bateko jaiak ziran eta txosnetan berrerabilteko eda-lontziak erabilten hasi ziran euro baten truke. Jaiak amai-tutakoan edalontzia etxera eroan gura ez bazan, txosnan entregau eta euro hori erreku-peretan zan, helburua jaietan sortzean dan zaborra murriz-tea zan-ta. Baziran persona asko diru itzulketeari muzin eginaz edalontziak botata ixten ebezanak eta diruz larri ibiltzen ziran beste batzuk bar-riz batu eta bueltetan ebe-nak. Urtenbide ona izan zite-keana konflikto bihurtu zan txosnako zerbitzari batzuk desadostasuna adierazo ebe-nean. Argudioa zan edalontzi piloa batu, entregau eta dirua kobretan ebenak ez zirala erosi ebezanak, beraz ez ebe-la kobratzeko eskubiderik . Istorioa eztabaida baten amaitzen da.

ZERTZEAN



ENARA GALLASTEGI

Gaia jarrita: "Euskal Udalekuak"

1
Uda honetan saiatu dira hiltzen askoren ametsak ta sei bertsotan egin nahi nuke hausnarketatxo bat behintzat espazio aske ta euskaldun bat sortzen dihardutenentzat bertso sorta hau hain merezita Euskal Udalekuentzat.

2
Espazio hau antolatzeko jarri dizkigute trabak zigorrak eta hainbat debeku neurrigabeak erabat inporta gabe hainbeste haurren sentimenduek, zirrarak haientzat ez da utopikoa mundu transfeminista bat.

3
Zaila izan den arren aurrera joan dira txandak horrela erakutsita egindako lan denak merezi duela udaleku hau Euskal Herriko haurrentzat etxea dela ta horrelako espazioak beharrezkoak direla.

4
Denak zentzua hartzen du haurrak elkar zaintzen ikustean ta aldaketak antzematean beraengan ezustean zein hausnarketa berriak euren ahotatik entzutean aditzean “nik berriz etorri nahi dut datorren urtean”.

5
Guk jarraituko dugu balore hauetan heziz ta haziz elkarlanean aurrera segiz pentsatuz ta pentsaraziz mundu berri bat irudikatuz guztia hutsetik hasiz deseraiki ta berreraikitzen desikasi ta ikasiz.

6
Nahiz kritikatu hainbeste aldiz gure ideei ta balore guk zerbait egin dugu azkenik askok uste baino hobe hainbeste umek esan baitute bilduta nahiko adore “handitan Euskal Udalekutan izan nahi dut monitore”.

BEGI TXINDORRA

Badabiz heltzean BEGITUREN Udako Argazki Lehiaketarako lehenengo erretratuak eta hurbilean be, oporraldi itzelak pasau daitekezala erakusten deuskue. Ioritz Zuazok Gor-beiako aterpeetako baten ateratako argazkia dogu hau, gau luze baina gogoangarri horreetako baten ostean lagunakaz egun barriari egun on esaten. Aterpean egun batzuk egin ebezan, eta zelango egunak. Egunez zein gauez, oinez zein “katxarroakaz” bueltak, amaibako barre algarak, egunsenti zein iluntze ikus-garriak, erritu paganoren bat, izarren ikuskizuna eta primerako menuak: txuletea eta lubinea brasan, paellea, tortillea, hanbur-gesak, entsaladea, urdaia... urdai asko barriz.

Oporretan be, dibersinoa ez da egiten doguzan kilometroen arabera. Etxetik bost, hamar kilometrorra be badagoz altxo-rrak eta hurbilekoakaz joan ezkerro, ziur altxorren kutxea zabal-duteko gai garala. Aukerea izan ezkerro, safari bat edo irla para-disiako batera joatea galdu ezin dan moduan, ez galdu hurbileko aukera honeek be!



Argazkia: Egunsentiaren itzala.



Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zentzual: 900
R.P.S. 31/06

AREATZA

Upokolupetza alkarteko ganaderuek botako dabe jaietako txupina

Zortzi egunez murgilduko dira billaroztarrak tradizinoz beteriko jaietan; txotxongiloak, erraldoiak, buruhandiak, Areatzako Banda, suak eta zelan ez, Danborradearen kalejirak.



Asier Abrisketa

Urtero lez abuztuaren 23an, aurten domekea, botako da Areatzako jaiei hasikerea emoteko txupinazoa eta uribilduan jai giroa izango da nagusi, ia-ia deskantsurako tar-te barik, hurrengo domekara arte. Festeak lehertu orduko urtengo dira betiko lez udale-txetik txotxongilo, erraldoi eta buruhandiak, herriko txistula-rien, Areatzako Bandearen eta Bizkaiko Gaiteroen musikeak lagunduta.

Hortik aurrera, adin eta gustu guztientzako jarduera eskaintza zabala antolatu dau Jai Batzor-deak. Musikeari jagokonez Al-txa Porru eta Errotaren errome-riak, Paco Diskofestea, Chuchin Ibañez y los Charros mariatxiak, Burutik, Aingura, DJ Gose ta Sue eta DJ Pastixxote egongo dira, gaztetxeko kontzertuez gaine-ra. Baina egunez, kale-musikea izango da nagusi: txistulari, gaiteru eta bandea, Skapaie eta Elektrokela elektrotxarangak, Kittu, Hamaika Kantu eta zelan ez, tanbor ugari.

Abuztuak 23, domekea

14:00etan, txupinazoa Upoko-lupetza abeltzainen alkartea-ren eskutik. Gero, txotxotxongilo, erraldoi, buruhandi, txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak. Olinpiaden hasikerea. 18:00etan, Skapaie Elektrotxa-rangea. 20:00etan, salbe herrikoia: Hi-

larion Eslavaren Salve Regina. 22:30ean, XXXI. Playback Le-
hiaketea. 24:00etan, erromeria Altxa Po-
rru taldeagaz.

Abuztuak 24, astelehena

06:00retan, mortero jaurtiketea. 11:30ean,txistularien kalejirea. 12:00etan, meza nagusia. 13:00etan, herri-kirolak. 18:00etan, pelota partiduak. Ostein, Laminoren Pelota Txa-pelketako finalak. 21:00etan, Chuchin Ibañez y los Charros mariatxi taldea. 23:30ean, presoen eskubideen aldeko txokolatea.

Abuztuak 25, martitzena

12:30ean, arimen aldeko mezea. 13:30ean, belaunaldiarteko agurra. 14:00etan, nagusientzako ko-paua eta musikea. 16:00etan, Briska Txapelketea. 19:00etan, belaunaldiarteko jantza erronka herrikoia (jauziak) eta erromeria Kittu taldeagaz.

Abuztuak 26, eguaztena

11:30ean, puzgarriak. 13:00etan, bits jaia. 14:30ean, Makailao Txapelke-tako aurkezpenak. 16:30ean, Tute Txapelketea. 18:00etan, Umeen Playback-ak. 18:45ean, Rally Umoristikoa. 19:30ean, Paco Diskofesta. 22:00etan, kontzertuak Lami-netxe Gaztetxean.

Abuztuak 27, eguena

13:00etan, Igel Txapelketea. 16:00etan, Mus Txapelketea.

20:00etan, Tortilla Txapelke-tako aurkezpenak. 21:00etan, afari herrikoia. 22:00etan, DJ Gose ta Sue.

Abuztuak 28, barikua

14:30ean, Paella Lehiaketako aurkezpenak. 18:00etan, Olinpiadak. 20:00etan, Elektrokela Elektro-txarangea. 23:00etan, kontzertuak: Buru-tik, Aingura eta MJ Pastixxote. 02:30ean eta 05:00etan, etxera bueltetako autobusa.

Abuztuak 29, zapatua

12:00etan, Xake Txapelketea. 18:00etan, Dandobarrada Txikia. 22:30ean, Areatzako Danborra-daren, kuadrillen eta Areatzako Bandaren kalejirea eta suak. 24:00etan, erromeria Errota taldeagaz. 02:00etan, Areatzako Danbo-rradaren bigarren buelta. Jarraian, erromeria Errota tal-deagaz. Gero, MJ Pastixxote.

Abuztuak 30, domekea

13:30ean, Tabernen arteko Pin-txo Lehiaketea. 14:00etan, kantu bira Hamaika Kantu taldeagaz. 17:00etan, pala partiduak. Ostein, Areatzako Frontenis Txapelketako finala. 21:00etan, Areatzako Bandaren Magic Melody kontzertua, Ho-dei Magoak lagunduta. Gero, jaien agurra Upokolu-petza abeltzainen alkartearen eskutik.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Eklipse totala ikusi ahal izango da hilaren 12an

Ilargia 19:30ak aldera hasiko da Eguzkia apurka-apurka ostenduten eta 20:27an ostenduko da Eguzkia guztiz. Hemen ikuskizunaz gozatuteko jarraibide batzuk.



Asier Abrisketa

Eguzki eklipse totala Euskal Herri osoan ikusi ezin izango dan arren, Arratia, Ubide eta Zeberion bai, abuztuaren 12an gertakari astronomiko zirrara-garrienetako bizi ahal izango dogu. Ilargia Eguzkiaren aurre-tik pasauko da, segundo bat-zuez Eguzkia guztiz ostendu arte. Gauak eguna hartuko dau, tenperaturak bajatuko dira, haize boladak etorriko dira eta animaliak zoratu be egingo dira, ziur gutako nonor be. Ikus-kizun hau ez dogu barriro 2183.

urtera arte gurean ikusiko. Ilargia 19:30ak aldera hasiko da Eguzkiaren aurretik pasetan eta berau, 20:27an ostenduko da guztiz. Gaur egun, sano erra-za da eklipsea non eta zelan iku-si jakitea. Orokorrean, gero eta mendebalderago joan, eklipse totala luzeagoa izango da (Di-man 34 s, Zeberion 41 s). Eklip-sea non ikusiko dan eta non ez aurreikusteko, hainbat aplikazi-no dagoz, barbarako IGN Eclip-ses mapa interaktiboa. Eklipsea ikusiko ez dan lekuak baltzez dagoz eta besteetan, edozein puntutan klikatuta edo lekua bi-latuta, ordutegiak, eklipsearen iraupena eta bestelango datuak agertuten dira. Beste alde bate-tik, Aranzadi Zientzia Elkar-teak prestatutako gideari erre-paso bat emotea gomendatuten da, alkartearen webgunean. Gogo-ratu, ezinbestekoa dala begiak babestuteko antioju bereziak erabiltea.

AREATZA

Arratiako Iluntze Antifaxista antolatu dau Ernaik Areatzan

Asier Abrisketa

Arratiako Ernaik bailarako gazteria independentista eta antifaxisteari Areatzan pla-zan batzeako dei egin deutso, abuztuaren 21erako. Arratiako Iluntze Antifaxista ekimena urri lehenengoaren 13an Donostian, “Euskal Herria irabaztera! Faxis-moari ez” lelopean deitu dan manifestazino nazionalera bide-ratuta dago. Honetara joateko autobusa be ipini dau Ernaik

eta Axular Herriko Tabernan emon daiteke izena. Abuztuaren 21erako afarirako txartelak be bertan erosi daitekez, 7 eurotan. Abuztuaren 21eko, barikua, ekimena Joseba Ugalde eta Elur Zarraga Ernaiko militan-teen Faxismoari ez, Euskal Herria irabaztera! berbaldia-gaz hasiko da. Hau amaituta, 20:30ean, manifestazinorako deialdia zabaltzeko agerraldia egingo dabe bertaratutakoek eta gero zerbitzauko da afaria.



BIHERKO ARRATIA: Etorkizuna alkarregaz eregiteko bidea



Errota Fundazioa

Zelangoa izatea gura dogu Arratia 2040an? Zer egin behar dogu gure eskualdea ekonomikoki indartsuagoa, sozialki kohesionatuagoa eta bizi-kalidade handiagokoa izan daiten?

Galdera horreei erantzuteko sortu da BIHERKO ARRATIA Plan Estrategikoa, Arratiaren etorkizuna modu partekatuan irudikatu eta eregiteko urtebeteko lanketa sakonaren emaitzea. Baina plan hau ulertzeko, lehenengo Errota Fundazioa zer dan eta zergatik sortu zan ulertu behar da

Errota Fundazioa 2017an sortu zan, Arratiako garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko helburuagaz. Hasikeratik izan dau argi bere egitekoa ez dala proiektu isolatuak garatzea bakarrik; harago doa. Errotaren eginkizuna eskualdeko eragileak batu, alkarriketa eta hausnarketa partekatuak sustatu, eta Arratiaren etorkizunerako beharrezkoak diran ekimenak bultzatzea da.

Atzen urteotan hainbat proiektu garatu dira helburu horregaz, baina Arratiak aurrean dituan erronkei begiratuta (biztanleriaren bilakaerea, enpresen lehiakortasuna, talentuaren igesa, lehen sektorearen etorkizuna edo merkataritzaren eraldaketa, besteak beste) beharrezkoa zan eskualde mailako ikuspegi bateratu bat eregitea.

Helburu horregaz ipini zan martxan 2025ean BIHERKO ARRATIA Plan Estrategikoaren prozesua. BIHERKO ARRATIA ez da bulego baten idatzitako dokumentu bat. Ez da erakunde bakar baten plana be ez.

Urtebetez, hilero egindako lan saioetan, Arratiako errealdade eta ikuspegi desbardinak mahai berean batu dira; udal ordezkariak, enpresak, hezkuntza zentro publiko eta pribaduko ordezkariak, Gorbelaide Landa Garapenerako Elkartea, Errota Fundazioko patronatuko kideak eta fundazinoko lantaldea.

Lanketa horren bitartez, etorkizunari buruzko ikuspegi partekatu bat eregi da: Arratiak bere nortasuna zaindu behar dau, baina aldi berean barrikuntzea, enplegua, ekintzailetzea eta tokiko garapena indartuko dituan eskualdea izan behar dau.

Ikuspegi hori oinarri hartuta, misino argi bat definitu da:

2040rako, Arratian bizi diran eta eskualdetik kanpo lan egiten daben biztanleen % 25ak Arratian lan egitea lortzea, herritarren kultura barritzailea sustatuaz eta giza kapitala prestatu, atxiki eta erakarriko dauan ekosistemea artikulauaz.

Helburu horrek badau atzean idea sinple baina garrantzitsu bat: Arratiak lan egiteko aukerak eskaintzen badiu, bizi-proiektu erakargarriak sortzean badiu eta bere nortasunari eusten badeutso, gero eta persona gehiagok aukeratuko dabe bertan bizi eta etorkizuna eregitea.

Misino hori lortzeako, hiru inpaktu estrategiko planteau dira: industria, barrikuntzea, tokiko ekonomia eta zerbitzuak indartzea eta lehen sektorearen etorkizuna bermatzea.

Eta helburu horreek errealdade bihurtzeko, bost proiektu estrategiko diseinatu dira:

Arratiako Garapen Ekonomikorako Plataforma. Arratiako jarduera ekonomikoa indartze-

ko tresnea izango da. Enpresak, ekintzaileak, hezkuntza zentroak, udalak eta gainerako eragileak saretu eta alkarlanean ipiniko dituna, azpiegituren, enpresen garapenaren, ekintzailetzearen eta giza kapitalaren prestakuntzearen inguruko ekimenak sustatuaz.

Arratiako Enplegu Zerbitzua. Eskualdeko enpresen eta personen arteko zubia izango da, bertako talentua prestatu eta Arratian bertan lan-aukerak sortzea helburu dituna.

Berrikuntza Fabrika. Ezagutzea, sormena eta barrikuntzea sustatzeko espazioa izango da. Enpresak, hezkuntza-sistema eta bestelako eragileak alkartuko ditu, etorkizuneko erronkei modu barritzailean aurre egiteko.

Bidelagun proiektua. Arratian urteetan pila-tutako esperientzia, ezagutzea eta profesio-nalen ibilbidea belaunaldi barrien zerbitzura ipintea dauka helburu. Mentoretza, laguntza eta esperientzien transmisioa izango dira proiektu honen ardatzak.

Hemengoa Sarea. Tokiko lehen sektorea, merkataritza, ostalaritza eta hurbileko ekonomia balioan jarriko dituan sarea izango da. Helburua bertako produktuak eta zerbitzuak indartzea eta konsumo arduratsu eta hurbila sustatzea da.

Plan estrategikoaren arrakastea ez da dokumentu baten jasotako ideen arabera izango; personen eta erakundearen inplikazioaren arabera izango da. Horregaitik, gobernanta kolaboratiboa izango da, BIHERKO ARRATIAren oinarria. Horretarako, lau lan-mahai eratuko dira, proiektu estrategikoak garatzeko, lehentasunak modu partekatuan zehazteko eta ekimen barriak martxan ipinteko alkargune eta koordinazio-gune bihurtuaz.

Udal Mahaia, eskualdeko udalen arteko koordinazioa eta ikuspegi bateratua bermatzeko. Hezkuntza Mahaia, prestakuntzea eta eskualdeko behar ekonomiko eta sozialak buztartzeko. Enpresa Mahaia, enpresen arteko lankidetzeta, barrikuntzea eta garapen ekonomikoa sustatzeko. Arlo Sozialeko Mahaia, gizarte kohesioa, personen ondoizatea eta aukera bardintasuna lantzeako.

Apirilaren 22an aurkeztu zan BIHERKO ARRATIA Plan Estrategikoa jentearrean, baina aurkezpen ha ez zan helmugea izan; abiapuntua baizik. Oin datorku benetako erronkea: definitutako proiektuak martxan ipintea, eragileen arteko alkarlana sendotzea eta herritarren inplikazioagaz Arratiaren etorkizuna alkarregaz eregitea.

BIHERKO ARRATIA ez da Errota Fundazioaren plana, ezta erakunde jakin batena be ez. Arratiako eragileek eta herritarrek alkarregaz eregitako bide-orri bat da, 2040rako Arratia oparoago, barritzaileago eta kohesionatuago bat lortzeako.

GU AURRERA GOAZ, BAZATOZ?



ARRATIA, ZEBERIO

180 alkatek bat egin eben Bergaran, “geure burua gobernetako eskubidea” aldarrikatuteko

Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena eta Foruen abolizinoaren 150. urteurrena gogoratuteko ekitaldian Areatza, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Zeanuri eta Zeberiko udal ordezkariak hartu eben parte.

Asier Abrisketa

EAJ-PNV eta EH Bilduk deituta, garagarriaren 19an alkateen ekitaldi masiboa egin zan Bergaran, 180 udalerritik gorako udal ordezkariak alkartuta. Arantzazu, Artea eta Ubidekoak kenduta, gure eremuko alkateak be bertan egon ziran: Zigor Folla (Areatzako EH Bildu), Aitor Sorriketa (Bediako EAJ), Jose Mari Atutxa (Dimako EH Bildu), Olatz Urkiza (Igorreko EAJ), Esther Iturrioz (Lemoako EAJ), Nahia Urrutxua (Zeanuriko EH Bildu) eta Ekain Goti (Zeberriko EH Bildu). Bediako Jose Luis Intxausti eta Alberto Sanchez, Igorreko Ibon Ozerin eta Zeanuriko Arkaitz Estiballes EH Bilduko zinegotziak be egon ziran Bergaran. Argazkiak barriz, alderdi bakotzak berea atera eban, eta batera bat be ez.

Atzenengo gerra karlistearen

ostean Foruak abolidu zirane-tik 150. urteurrena gogoratu eta Franco hil eta jarraian sortu zan Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena omenduteko egin zan ekitaldia. Bertan, Gipuzkoako ahal-dun nagusi Eider Mendozak eta Bergarako alkate Gorka Artolak hartu eben ber-bea. Mendozak “euskal herri-tarren etxe komuna” eregiten segiduteko asmoa iragarri eban: “Euskal lurraldeoi jagoku geure burua gobernetako eskubidea, autogobernua eten barik bar-ritzuta eta garatuteko eskubidea”.

Bide beretik, Bergarako alka-teak kolore politiko desbardi-natik bertaratutakoan batasuna azpimarratu eban. Gogorazoa eban, herritarren ongizatea hob-e-tutea dala asmoa eta horretarako, “autogobernu eta burujabetza handiagoa” behar dala, “etorkizu-na herritarren borondade demo-kratikoaren arabera antolatze-ko”.



ASESORIA Gorbelaide
Juridikoa · Fiskala · Lanikoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

Kili~Kili
Amigo eta Puntuatzaile
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 473 43 81

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusia
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ZEANURI

Gorbeiara igonaz hasiko ditue jaiak zeanuriztarrek



Hilaren 14tik 16ko astegoienean ospatuko dira Zeanuriko Andra Mari jaiak, bezperan be jaitxoa eginda.

Asier Abrisketa

Aurten, Andra Mari eta San Roke egunak astegoienean jausten dirala-ta, hiru eguneko jai laburrak egingo dira Zeanurin. Halanda be, jairako gogoak badagoz eta txupinazoaren bezperan, Zeanuriko Frontenis Txapelketako finalak eta herri afaria be egingo dira, bakotxak eroandako janakaz. Hurrengo egunean bai, abuztuak 14, hasiko dira ofizialki andramariak eta lehenengo ekintzea, kurtzera igotea izango da. Urtero lez, herriko txistulariek markauko ditue jaietako denporak; txupinazoa bota orduko, zapatuan zein domekan herritarrak izartuteko eta domekan, jaiei akaberea emoteko urtengo dira-ta. Horrezaz gainera, ohiko egitaraua antolatu da. Kontzertuei jagokonean, Pote Oil, Karam, Galazota eta Los Zopilotes

Txirriaos igoko dira oholtzara, Gaitegun, Iraitza eta Eingo erromeria taldeez gainera.

Abuztuak 13, eguena

18:00etan, Zeanuriko Frontenis Txapelketako finalak. 21:00etan, bakotxak eroandakoagaz herri afaria.

Abuztuak 14, barikua

06:45ean, plazatik Gorbeiara oinez. 07:30ean, kotxez Pagomakurrera igoteko hitzordua. 11:00etan, Txinbera Lehiaketea. 12:30ean, jubiladuen barauskarria. 15:00etan, 80. hamarkadako mozorro desfilea eta herri bazkaria. 18:30ean, txupinazoa Etzanderaldearen eskutik. Gero, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 19:30ean, Zaprist elektrotxarangea. 22:00etan, kontzertuak: Pote

Oil, Karam eta Galazota. Gero, erromeria Gaitegun taldeagaz.

Abuztuak 15, zapatua

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:00etan, mezea. 11:30ean, umeentzako jolasak: zezen mekanikoa, Txiki Rally eta egurrezko jolasak. 12:30ean, kantu poteoa Kittu taldeagaz. 18:00etan, Kiko Kikolas Zirkuaren Sin remite ikuskizuna. 19:00etan, pelota pariduak: Iker Etxebarria eta Aimar Atutxa vs. Peio Larrakoetxea eta Lander Erkiaga; Bingen Beitia eta Beñat Mendia vs. Beñat Etxeita eta Anton Erkiaga. 22:00etan, Jaietako Kartel Lehiaketearen sari banaketea. 22:15ean, Playback Lehiaketea. 23:30ean, Los Zopilotes Txirriaos taldearen kontzertua. 02:00etan, erromeria Iraitza taldeagaz. 02:30ean eta 05:00etan, etxera bueltetako autobusa.

Abuztuak 16, domekea

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:00etan, Sukaldari Eguna: tortillea, paellea eta postrea. 11:30ean, arimen mezea. 14:30ean, Sukaldari Eguneko sari banaketea. 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak. 17:00etan, umeentzako ur jolasak. 21:00etan, txokolatea eta txurroak. 21:30ean, erromeria Eingo taldeagaz. 24:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz.

AREATZA/ARTEA/IGORRE

Movistarrek arazoen jatorriaz azalpenik emon barik segiduten dau

Areatza, Artea eta Igorreko udalek publiko egin dabez egoerearen gaineko kexak, baina konpainiak ez dau konponbiderik emon.

Asier Abrisketa

Atzen hileetan Movistarrek Arratian daukan sareak sarritan egiten dau huts hainbat orduz. Honek eragin handia izan dau Movistarren bezero diran norbanakoengan, baina baita denda, banketxe, taberna eta bestelango zerbitzuetan zein honeen bezeroetan. Beraz, Movistarren bezeroak estaldura eta internet barik geratu dira sarritan; eta bezero ez diranek be, ezin izan dabe bankuan dirua atera edo erosketak txartelagaz ordaindu, BARIKa ezin kargau... Honen aurrean, udalek Movistarreri azalpenak eskatu eta kexa formalak aurkeztu ditue, erantzun argirik jaso barik.

Honen aurrean, Areatza, Artea eta Igorreko udalek egoerearen barri emon dabe publikoki. Igorreko Udala izan zan lehena informazino falta "onartezina" salatuten. Norbanakoak zein jarduera ekonomikoa kaltetuta ikusten diralako, "preminazko konponbidea" eskatuteko adierazpen instituzionala atera eban. Honen barri BEGITUn baina baita Deia eta El Correo komunikabideetan be emon zan.

Albisteak agertuterakoan, Arteako EAJk be Facebook-en honakoa adierazo eban: "Ar-



tean be bardin gagoz, Udaletik egindako kexei be ez jakie erantzun konpainiatik. Zerbitzu pribadua da baina herritarron eta enpresengan eragin zuzena daukie eta arduratsua izan behar da". Areatzako Udalak be adierazpen instituzinoal baten bitartez emon eban jakitera kexa formala aurkeztu ebala. Estaldura eta zuntzaren arazoek herrian eragiten dabezan kalteak jakinarazo eutsazan Movistarreri. Formalki eskatu dabe antena eta beste instalazioen azterketa tekniko urgentea, sarearen egonkortasuna bermatuteko berehalako konponbidea eta Udala informauta mantenidutea.

IGORRE

366 etxebizitza barri aurreikusten dauz Igorreko HAPO barriak

Hiri Antolamenturako Plan Orokorra garagarrilaren 22an onartu zan, EAJren aldeko boto eta EH Bilduren abstentzinoagaz.

Asier Abrisketa

Ia hogei urteko lan teknikoa, 2006 eta 2025-2026ko prozesu parte-hartzaileak eta administrazinoko izapidetza lanak amaituta, garagarrilaren 22an udalbatzara eroan zan HAPOaren txostena. EAJren

aldeko boto eta EH Bilduren abstentzinoagaz, Udal Gobernuak defendidu dauanez, "hazkunde-eredu orekatu, jasangarri eta Igorreren beharretatako egokitua" dan plana behin-behinean onartu zan. Oin, Jaurlaritzara eta Bizkaiko Foru Aldundira bialdu behar da

txostena eta diputazinoarena izango da atzen berbea.

HAPOak herriaren antolaketea zehazten dau, hazkundea planifikatua izateko. Holan, jarduera ekonomikorako eremuak, lurzoru urbanizagarriak, ekipamentu eta berdeguneetarako lurzoruak, azpiegitura eta

mobikortasun-sareak, ondare kulturala eta natura-ingurunea babestuteko eremuak finkatuten dira.

Etxebizitzak eregiteko aukerea

HAPOaren ardatz nagusietakoa etxebizitzen sustapena da eta planak, Igorren 366 etxebizitza barri eregiteko aukerea zabalduten dau. Horreetako 182 babes publikokoak izan beharko litzatekez, 130 babes sozialekoak eta 52 tasautako etxebizitzak.

EH Bilduren abstentzinoa

EH Bilduk positiboki baloratuten ditu HAPOan jasotako aurrerapausuak, batez be, etxebizitza gehiago eregiteko aukerea emoten dalako. Halan-



da be, ez dau plana osoan babestu, "behin-betiko onarpena baino arinago, herriarentzako onuragarriak izango litzatekezan hobekuntza eta argibideak mahaigainean ipinteko". Holan, etxebizitza barriakaz herria hazten bada, hazkundea zerbitzu publikoetan, kirol azpiegituretan eta bizikidetzarako espazio gehiagotan islatu beharko litzatekela uste dau.

ONDARE ERLIJIOSOA

“Naturak oparitutako edertasunaren eta belaunaldiz belaunaldi eskuakaz altzautako lanaren alkarrizketea da katalogoa”

Holan deskribidu eban Karlos Olabarri abadeak aurkeztu barri dan Arratia eta Ubideko Monumentuen Katalogoa. Inoz egindako ondare erlijiosoaren azterketarik zehatzena badago ikusgai, euskeraz zein gazteleraz, catalogomonumentaldiocesisbilbao.com webgunean.

Asier Abrisketa

Bagilaren 26an egin zan Zea-nuriko Andra Mari parrokian Bilboko Eleizbarrutiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bul-tzatutako eta Eleiz Museoak egindako ikerketearen ostean ondutako Arratia eta Ubideko Monumentuen Katalogoaren aurkezpen ofiziala. Ikerketa honetan, eskualdeko tenplu erlijioso guztien azterketa sakon bat egin da. Ez eraikinarena bakarrik, eraikinak gordetan di-tuan objektu, inguru eta egitu-razko ezaugarrien gainekoa be.

Lan osoa ikusgai dago, sano erabilerraza dan catalogomonumentaldiocesisbilbao.com webgunean. Herriz herri eta tenpluz tenplu dago antolatuta katalogoa eta esan moduan, eraikinaren, gordetan dituan objektuen eta bestelango bi-txikerien azalpen zein argazki partidea dagoz. Guztira hamar parrokia eta 68 ermita kata-logau dira Arratia eta Ubiden. Zeberioko monumentuen az-terketea be -parrokia bat eta 14 ermita- badago ikusgai, Nerbioi Garaia eskualdeko katalogoan, webgune berean.

Aurkezpen ekitaldian Arra-tiako hainbat udaletako or-dezkariak eta inguruetako his-toria zein erlijioaren zaleak batu ziran, bai eta hainbat kazetari be. Karlos Olabarri Arratiako abadeak, Raquel Cilla Eleiz Mu-seoko zuzendariak, Elixabete Etxanobe Bizkaiko Foru Aldun-diko Ahaldun Nagusiak eta Jo-seba Segura Bilboko gotzainak hartu eben berbea; bakotxak bere aldetik ikerketearen eta hau jenteartean zabaldutearen garrantzia azpimarratuaz.

Ordezkarien berbak

Karlos Olabarri abadea izan zan berbea hartzean lehenen-go eta honek, Altamirako ko-bako pinturen aurkikuntzeagaz alderatu eban Eleiz Museoaren ikerketea. Marcelino Sanz de Sautuola arkeologoa 1879. ur-tean Altamirako kobra sartu zan historiaurreko errastu bila eta lurrera begira joiala, bere

alabeak gora begira esan eut-san: “Begira aita, idiak!”. Ola-barrik azaldu eban, gu, kate-dral handietara begira gabizan bitartean, etxeko ermita eta eleizetako “arte ederren gor-detegia” ahaztuten dogula eta katalogoak alabearen papera hartu dauala, “begirada afek-tibo eta libreagoa eskainiaz”.

Raquel Cilla Eleiz Museoko zuzendaria izan zan hurrengo eta azaldu eban, katalogoak 40 urteko historia daukala. 1980an egin zan Bizkaiko monumentu erlijiosoan lehen katalogo bat -askoz murriztuagoa- eta oin-go jarraipena da: “Honek ez dau aurrekoa ordezkatu gura, aurreko ha hedatu eta hobe-tutea baino ez, teknologia ba-rriak erabilita gainera”. Beste alde batetik, ondarea eraikin eta artelanak bakarrik ez dirala azpimarratu eban eta berbar-tea iragarpen bategaz amaitu eban: Labayru Fundazioagaz ondare inmateriala kataloge-tan be hasiko dira (erromeriak, jaiak, langileak...).

Joseba Segura Bilboko gotzainak Eleiz Museoaren lana eskertu eban, Arratiako “herri-ondarearen argazki bil-dumea” egiteagaitik. Eta herri-ondarean, kristautasunak izan dauan pisua gogorarazo eban: “Eleiz baten benetako pisua ez da harria, denporea da, hemen pasau eta gorde dan guztia”. Bide beretik, Elixabete Etxano-be Bizkaiko Ahaldun Nagusiak herri-ondare hori ikertu eta gogoratuteko garrantzia az-pimarratu eban: “Baloretea da babestuteko lehenengo pau-sua. Aldaketa sasoi honeetan, ezinbestekoa da garana eta daukaguna zer dan jakitea”.

Europa mailako erreferen-tziatzko egitasmoa

Bilboko Eleizbarrutiak 1980ko hamarkadan egin eban monu-mentu erlijiosoan lehen kata-logoa, 300dik gora tenpluren ikerketeagaz. 40 urte honeetan tresna garrantzitsua izan da ikerlariantzako eta etapa barri honetan, bi izan dira helburu nagusiak: katalogoa hedatutea



Lan osoa ikus-gai dago, sano erabilerraza dan catalo-gomonumen-taldiocesis-bilbao.com webgunean. Herriz herri eta tenpluz tenplu dago antolatuta katalogoa

eta ikuspuntua eguneratutea. Raquel Cilla Eleiz Museoko zuzendariak azaldu eban, “ondarearen gaineko gure ikus-pegia aldatu egiten dalako eta begi barriakaz begiratuteko beharra dagoalako”.

1980an 300dik gora izan zi-ran ikertutako eraikinak baina oin, 785 tenplu katalogauko dira, 10.000 fitxatik gorako emaitzeagaz. 1.000 erretaula eta 9.000 eskultura baino ge-hiago izaten dabiz aztertuak, 1.500 plano egingo dira eta 20.000 argazki inguru. Hau da, Europako eleiz ondarearen agiri-biltegirik osotuenetakoa izango da Bizkaikoa.

Izan be, inbentariotik hara-go eraikin bakotxaren historia, arte eta arkitekturearen ikus-puntutik aztertuten da, artxibo historikoetatik, bibliografia es-pezializatutik eta eremu-iker-keta sakonetik ateratako infor-mazioa eskainiaz.

“Ondareak begirada zuhu-rrak sarituten dauz”

Hori inoan Raquel Cillak, Arra-tiako Monumentuen Katalogo-rako ikerketak egitean, aurki-tutako objektu eta bestelango sorpresen zerrendea aurkeztu-terakoan. Zerrendea luzea da, eta banan banan, tresna, erropa, eskultura, margolan eta elementu arkitektoniko honek

banan-banan ezetu ahal dira catalogomonumentaldiocesis-bilbao.com webgunean. Hemen objektu horreetako batzuk.

Elexabeitiko Guadalupeko
Ama Birjinea

Ezaguna zan baina oin arte ikertua izan ez dan margolana Elexabeitiko San Migelen egon da hainbat mendez. Miguel Cabrera (1715-1768, Mexiko) barroko novohispanoko mai-suak margoztu eban koadrua 1754an, irudi guadalupanoen irudigile garrantzitsuenak. Sasoi hareetan Espainiar Inpe-riorearen parte zan Mexiko eta Arte lotzean ditu hurrengo inskripzioagaz: *Según devo-cion de Don Francisco Antonio de Eguiluz, natural de Arteaga*. Oin, pieza zein marko originala barriztuten dabiz Eleiz Museoa eta Arte Ederren Museoa eta Arte Ederren Museoan laster egongo da ikusgai.

Otzerinmendiko San Loren-tzoko lipsanotekea

Egurrezko kutxa txikerra da eta tenplua kontsagretako erlikiak gordeten ziran ber-tan. Bitxi eta ezohikoa izateaz gainera, tintazko idatzi bat dauaka alde baten, letra erro-manikoz honen edukia des-

kribiduten dauana: *Hic sunt reliquie / honore dei mar / thi s Lauren / ti et dei marrtiri / et S Marina / et dei Sn Mt apto / et s* (irakurgatxa). Hau da: “Hemen dagoz Lorentzo martiriaren eta Marina martiriaren ome-nezko erlikiak, eta San Martin (?) apostoluarenak, eta San...”. XI. edo XII. mendekoa dala uste da eta gainera, altarea be osorik kontserbau da.

Altzuako San Juaneko hilarria

Forma luze eta prismatikoko hilarria da, goiko aldea laua eta

alboak ia landubakoak dituana. Presbiterioko harmailan be-rreabilita topau eben. Piezaren goiko aldean grafia batzuk igar-ten dira, baina oso erosi-natuta dagoz. Holan transkribau dira: + *in dêi no / mine ego / Zeiani cu / m suo ger / mani. laun / ti. In cor / pore suo / + S+ N+ ob / it (...)* / O (...)ER / (...)D CC. Hileta-idaz-kun bat da, sarrera klasikoa-gaz eta datu onomastikoakaz, baita dateagaz be, baina hori, zoritxarrez, oso galduta dago. Datazinoa XI. mendean ezartea proponidu da. Zeiani antxinako formea agertuten da.

Elexabeitiko urteurren taulea

Eskuz idatzi eta pintautako paper honek parrokiaren ur-teurren-mezen fundazioak erregistretako eta gogorara-zoteko balio eban. Horreetako bakotxean idatzita dagoz data jakin batzuetan bete beharre-ko urtemugak, memoriak eta liturgia-ospakizunak. Norma-lean, testamentu-fundazioei, botoei edo eskaintza elizkoiei lotuak. Hilebeteak lerro gorrien eta apaindura geometriko eta loa-apaingarri txikien bidez

agertzen dira bereizita, eta burualdeak, barriz, gustu geo-metrikoko zerrenda bat dauka, erreperitorio modernistak eta eklektikoak gogorarazoten dituana. Ikuspegi historiko-artistikotik, mueta honetako parrokia-taulak landa-eremuko parrokien antolaketa ekono-miko eta espiritualaren le-kukotasun interesgarria dira. Litekeana da XX. mendearen lehen laurdenekoa izatea, bai-na ziurrenik askoz zaharragoak diran urteurrenak jasoten ditu, beranduko bersino honetan kopiau eta eguneratuak.

San Juaneko matrakea Ubiden

Egurrezko matraka txiki hau kanpantorreko edo koruko matraka handietatik bereizten da eta sakris-tau, eleizmutil edo kofradiek eredu ibiltariko eleizkizun zehatzetan era-biliko eben. Aste Santuko eleizkizu-nak iragartea eukan helburu nagusi, Eguen Santuko Gloriatik Pazkoko Bijiliara arte, izan be, epealdi horre-tan kanpaiak isilik egon behar ziran tradizino liturgikoaren arabera eta beraz, kanpai-deia ordezkaturten eban. Gatxa da nozkoa dan esatea, baina XVIII. mende eta XIX. mende hasieran kokatu da.



IGORREKO UDALA
IFK: P-4810700G
Elexalde 1, 48140 Igorre (Bizkaia)
udala@igorre.net
www.igorre.net
Telefonoa 94 631 53 84
Faxa 94 631 54 55

IRAGARKIA

Igorreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin-behinean onartzea


Igorreko Udalbatzak, 2026ko uztailaren 22an egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen ge-hiengo osoz:

- 1, 2, 3, 4, 6, 8, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 21, 25, 32, 36. eta 40. zenbakiko alegazioak osorik onestea, talde erredaktoreak sinatutako txostenetan azaldutako oinarriekin bat etorritik. Txosten horiek akordio honi erantzen zaizkio eta arrazoitzeko balio dute.
- 5, 20, 23, 24, 29, 31, 34, 35, 39. eta 41. alegazioak zati batean onestea.
- 7, 9, 18, 19, 22, 26, 27, 28, 30, 33. eta 38. alegazioak osorik ezestea.
37. alegazioa ez onartzea, titular beraren beste alegazio bat eta ondorengo data daudelako.
- Igorreko HAPO behin-behinean onartzea, espedienteko dokumentazio teknikoan eta ingurumen-doku-mentazioan jasotako baldintzetan, Udalaren jarraibideetatik, txosten sektorialetatik eta jendaurreko infor-mazioaren izapidean alegazioei emandako erantzunetik eratorritako aldaketak barne hartzen baititu.
- Espedientearen eta Igorreko HAPOren dokumentazio teknikoaren eta ingurumen-dokumentazioaren kopia osoa bidaltzea, izapidetuta, honako erakunde hauei:
 - a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, dagokion txostena egin dezan.
 - b) Ingurumen-organismoari, ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena egin dezan.
- HAPO behin betiko onartu aurretik, honako administrazio hauen txostena biltzea:
 - a) Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Arroko Erakundea, A.A., HAPOren dokumentu teknikoan bere txostenaren ondorioak sartzearekin ados dagoela adieraz dezan.
 - b) Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak HAPOren aurreikuspenak garatzearen ondorioz sortzen diren eskaerei zerbitzua emateko dauden hornidura- eta saneamendu-azpiegituren ahalmenaren nahikotasunari buruz
 - c) Aldundiko Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko Nekazaritza Zuzendaritzaren txostena, Nekaza-ritza eta Elikadura Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, HAPOren aurreikuspenek eragindako balio agerikoko handiko lurzoruei dagokienez.
 - d) Aldundiko Natura Ingurunearen eta Nekazaritzaren Saileko Ingurumen Zuzendaritzaren txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana onartzen duen ekainaren 15eko 83/2015 Foru Dekretuaren 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - e) Aldundiko Natura Ingurunearen eta Nekazaritzaren Saileko Ingurumen Zuzendaritzaren txostena, Bisoi Europarraren Kudeaketa Plana onartzen duen ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren 10. artikuluan xe-datutakoaren arabera.
 - f) Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetza, etxebizitza babestuen hirigintza-erakigarritasuna jar-duketa integratuen artean transferituz babes publikoko etxebizitzaren gubieneko estandarrak zenbatzeko baimenari buruzkoa.
- Interesdunei jakinaraztea HAPOa behin betiko onartzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokiola, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin ondoren.
- Erabaki hau jendaurrean jartzeko izapidean alegazioak egin zituzten pertsona guztiei jakinaraztea, bai eta haien alegazioari emandako erantzuna ere, HAPOren erredakzio-taldearen txostenean azaldutako moduan (txosten hori arrazoitzeko balio du). Halaber, jakinarazten zaio erabakia inolako errekurtsorik jaso ezin duen izapide-egintza dela.
- Erabaki hau Arkitektura eta Hirigintza Bulegoari S.A. helaraztea.
- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean, ohiko zabalkundeko prentsan eta udalaren webgunean argitaratzea.

Igorren, 2026ko uztailaren 24an
ALKATEA
Olatz Urkiza Atutxa



San Migel Elexabeitiko taulea.



Elexabeitiko Guadalupeko Ama Birjinea.



Ubideko matrakea.

PELOTEA

Bizkaiko Herriarteko Txapelketako irabazlea da Zeanuri

Txapela lortu ostean Euskal Herriko sailkatu zan baina lehen finalaurrekoa galdu eban Hernaniren kontra.



Asier Abrisketa

Bizkaiko Herriarteko Txapelketako atzen edizinoetan Markina-Xemein eta Zeanuri izan dira finalistak baina bietan, markinarrek eroan eben txapela. Aurtengoan baina, atzenean zeanuriztarrek lortu eben Bizkaiko herriarteko txapeldun

absolutuak izan diranei aurea hartzea. Holan, garagarriaren 4an Barakaldon irabazitako txapela sano berezia izan zan. Bikoteka Gotzon Erkiaga, Jon Beitia, Liher Beobide, Auritz Gortazar, Anton Erkiaga eta Bingen Beitiak finaleko hiru partiduetatik bi irabazi ebezan Markinaren kontra (22-6, 3-22

eta 22-17). Txapela ekarteaz gainera, Euskal Herriko Herriarteko Txapelketarako sailkatu zan Zeanuri. Garagarriaren 11n Zumarragan hasi zan Euskal Herriko herriartekoa, Zeanuri eta Hernaniren arteko finalaurrekoagaz, baina Hernanikoak gehiago izan ziran. Lehen bi partiduetako bana herri bakotxak irabazi ostean, nagusienagaz egon zan finalerako txartela jokoan. Beitia eta Erkiaga gogor aritu ziran baina atzenean Hernanikoen esperientzia nagusitu zan. 22-7, 1-22 eta 17-22 izan ziran partiduen emaitzak. Halanda be, Beitia harro agertu zan egin-dako lorpenakaz: "Pozik gagoz txapelketeagaz, Euskal Herriko Herriartekoan sartzea hain herri txikia izanda... gutzako pozgarria izan da aukerea izan daben lau herrietako bat izatea".

PELOTEA

Plazandreak txapelketako finalean dago Amaia Aldai

Amaia Aldai: "Finalera partidu biak irabazita ailegetea askoz politagoa da, personalki be kondiantza gehiagogaz heltzean gara; etxeko lanak egin doguz eta lortu dogu finalerako txartela".

Asier Abrisketa

2024an txapela jantzi eban eta pasau dan edizinoan banakako finalera heldu zan pelotari dimoztarra, baina ezin izan eban txapela eskuratu. Aurten, binakakoa jokatutea egokitu jako Miriam Arrillagagaz eta txapela ekarteko beste aukera bat izango dau Aldaik. Txapelketa osoa lez, final handia be Bilboko Esperantzan jokatu da abuztuaren 10ean. Aldai eta Arrillagak, Olatz Arrizabalaga eta Arrate Bergara izango dabez aurkari.



Udako Torneoa

Plazandreak txapelketeaz gainera, Udako Torneoa murgilduta be badabil Amaia Aldai, Nahia Bertizegaz batera. Lehenengo partidua garagarriaren

Sean jokatu eben Laia Salsamendi eta Uxue Osesen kontra, baina 22-13 galdu eben. Bigarrenen bai, 22-19 irabazi eben garagarriaren 19an Miriam Arraiza eta Enara Gaminderen

kontra. Oindino ligaxka fasean dago txapelketea eta abuztuaren 6an Beran eta 15ean Aretxabaletan jokatu behar dabe Urrezko Ligara pasauko diran jakiteko.

TRONTZEA

Ruth Linaza azpitxapeldun Arabako trontza mistoan

Kimetz Lapazaranegaz egin eban bigarren eta zazpi bikote egon ziran lehian: "Hau da txalogarriena, trontzea egoera oso gatxean dago-ta, bikote gitxi eta plazetan aukera gitxiago".

Asier Abrisketa

Ruth Linaza lemoaztarak Arabako Trontza Misto Txapelketan lehiatu zan garagarriaren 19an Maeztun. Kimetz Lapazaran eta berak, azpitxapeldun izatea lortu eben hirugarren urtez jarraian. Lehenengoak Garbiñe Lopez de Uralde eta Ion Lapazaran izan ziran eta hirugarrenak, Sara Jimenez de Aberasturi eta Mikel Gonzalez. Linazak BEGITU kontau dau bero handia zala Maeztun baina halanda be, sentsazio onakaz ibili zirala.

Halanda be, gaur egun Euskal Herriko zein Arabako andrazkoen trontzalari txapelduna danak gehien azpimarratu dauana jente barriaren parte-hartzea izan da. Zazpi bikote izan dira eta Linazak azaldu dauanez, trontzea dagoan egoera oso zailean, "txalogarria" da hori: "Bikote gitxi dagoz eta plazetan aukera gitxiago izaten dauzalako (trontzeak)". Linazak abuztuaren 7an jokatu dau Arabako Andrazkoen Trontza Txapelketea Gasteizko Foru Plazan, jai bete-betean.



PELOTEA

Donapaleuko txapela jantzi dau Ziarrustak

Ziarrusta eta Saint Paulek 40-31 irabazi eben Ugarte eta Gurruchagaren kontrako finala.

Asier Abrisketa

Ekhi Ziarrustak Jon Saint Paulegaz jokatu dau Donapaleuko trinkete txapelketea eta finale-ra ailegauta, txapelak jantzea lortu eben. Garagarriaren 28an jokatu eben finala Inhar Ugarte eta Betti Gurruchagaren kontra eta 40-31 irabazi eban dimoztarren bikoteak. Ziarrustak partidu ostean BEGITU kontau eban, partidua hasikeratik menperatu eben berak eta Saint Paulek: "Markagailuan erdi ingurutik hurbildu jakuzan hiruzpalau tantura baina gero barriro sakea hartzea



lortzean genduan, guk eroan genduan partiduen kontrola eta horregaitik ez euskun iges egin".

TXIRRINDULARITZEA

Peio Erdoiza eta Oihan Rekakoetxea, txirrindularitzako promesa gazteak

Erdoizak mendian eta Rekakoetxeak errepidean, marka itzelak lortu ditue atzen denporaldian, Euskal Selekzinoagaz be lehiatu diralarik.

Asier Abrisketa

Inguruko txirrindularitza baseko gaztetxoak fin ibili dira amaitu barri dan denporaldian. Eskualdeko txirrindulari gehiago badagoz be, Peio Erdoiza Jugo lemoaztarra eta Oihan Rekakoetxea Hernandez zeberioztarra nabarmendu dira, bata mendiko lasterketetan eta bestea errepidekoetan. Holan, Espainiako Txapelketetara Euskal Selekzinoagaz be joan izan dira. Bertan dominarik irabazi ez badabe be, esperientzia itzela irabazita.

Peio Erdoiza Lemoako Txirrindulari Elkartean dabil eta Mini-Green Series zortzi lasterketako sailkapen orokorrean bigarren egin dau. Muskizen jokaturako Bizkaiko BTT Txapelketan be, zidarra irabaziaz. Gainera, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen BTT txirrindularitzako proba irabazi eban, Melillako Espainiako BTT Txapelketarako txartela lortuaz, 21. egin eban. Errepidean be polito ibili da, Udaberri Kopako orokorrean hirugarren eginda. Oihan Rekakoetxea barriz, Arratiako ziklistan hezi baina gaur

Galdakaoko Gela taldean dabil. Udaberri Kopa zortzi probako sailkapen orokorrean bigarren postua lortu dau eta Karrantzan jokatu zan Bizkaiko Errepideko Txapelketan, irabazlea izan zan. Lorpen honeekaz, Madrilen jokatu zan Espainiako Txapelketan hartu eban parte, Euskal Selekzino noko Bizkaiko ordezkari moduan. Atzen metroetan oso aurrean joian, 5-6 postuan, baina bere aurrekoak jausi egin ziran zeberioztarra be atzeratuta. Atzenean, 36. egin eban, esprint masibo eta gogor bat korridu ostean.



Oihan Rekakoetxea goian eta Peio Erdoiza behean.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia Ak hasi dau aurrendenporaldia

Garagarrilaren 29an hasi ebezan entrenamentuak eta 2. RFEF mailan jokatu dauan taldean igazko jokalar askok segiduten dabe.

Erredakzinoa

Igazko denporaldian Arratia Ako fitxa eukien bost jokalarik ez dabe segiduko. Amaiur Artetxe Eibarrek fitxau dau eta eta Lucia Pascualek Tenerifeko talde baten jokatu dau. June Uriartek, Olatz Areitiok eta Andrea Martinek futbola itxi dabe. Arratiak sei jokalar barri ditu; Bizkerre taldetik etorritako Malen Olañeta, Sestao Riverretik etorritako Izaro Martin atezaina, 24-25 denporaldian Arratian jokatu eban eta igaz Alaves B taldean ibili zan Ainhize Antolin bueltau da. Athletic B taldeko Olatz Beitiak eta Athletic Ctik etorritako Laiene Etxezarragak be Arratian jokatu dabe. Arratiak Sara Schramm jokalar alemaniarra be fitxau dau; ikasketak Deustun egingo dituan jokalaria. Jokalariak bakarrik ez, entrenatzaile barria be badauka Arratiak, Sestao Riverretik etorritako Mario Quintasek zuzenduko dau Igorreko taldea. Igaz entrenatzaile izandako Jon Gonzalez "Peli" andrazkoen talde nagusien koordinadorea izango da.

XXXVIII. Igorre Saria abuztuaren 22an Urbietan Urbiet zelaia gizonezkoen XXXVIII. Igorre Saria hartuko dau abuztuaren 22an, zapatua. Aurten be, igaz lez, txapelketea egun bakarreko triangelukatuan jokatu da, Arratia A, Erandio eta Eibar C taldeen artean. Lehen partidua 17:00etan izango da (Arratia A-Eibar C), 18:00etan Erandio-Eibar C eta 19:00etan Arratia A-Erandio. Partidu guztiak 45 minutukoak izango dira. Txapelketea 20:00etako sari-banaketagaz amaituko da; talde irabazleak txapela jasoko dau eta jokalar onenari be saria emongo jako.



MENDIA

Zabalik dagoz daborduko Areatza, Lemoa eta Ubideko mendi jardunaldietarako izen-emoteak

Ubideko Bira urri lehenengoaren 15ean egingo da, Areatzako XIII. Mendi Martxea urri bigarrenaren 3an eta X. Lemoatx Trail zemendiaren 12an.



Asier Abrisketa

Atzen urteetan mendi lasterketek martxei leku asko kendu deutseen arren, oindino be badagoz prisa barik ibilteko moduko zitak gurean. Ubi-

deko Birea barbarako, urri lehenengoaren 12an egingo da eta ibilbide bi antolatu dauz Amexier Mendi Kirol Elkartek, 20 eta 12 kilometrotakoak. Hurrengo hurrengo, Oketa (1.029 m) eta Siskina (845 m) puntu

altuenak izango diralarik. Izen-emotea urri lehenengoaren 10era arte egin daiteke kro noak.com webgunean 10 eurotan, edo egunean bertan 15 eurotan. Urri bigarrenaren 3an barriz, Areatzako XIII. Mendi Martxea egingo da, antxinako bideak berreskuratu eta barriro erabilgarri ipinteko helburuagaz. 12, 19 eta 25 kilometroko ibilbideak prestatu ditu Lamino Kirol Klubak. Izen-emotea urri lehenengoaren 20ra arte egongo da zabalik rockthesport.com webgunean. Adinaren arabera, 10, 15 edo 20 euroko prezioa daukie inskripzinoek. X. Lemoatx Trail Ganzabal Mendi Taldeak zemendiaren 15erako antolatu ditu mendi lasterketa eta mar tx a bina. 17K eta 25K mendi lasterketak egingo dira, Bizkaiko Mendi Txapelketarako puntuagarriak izango diranak. Honeek martxakaz buztartuko dira: 25K mar tx a luzea eta 8,5K familiarra. Izen-emotea bada go zabalik buscametas.com webgunean.

● AUZOETAKO JAIAK

Auzo giroaz gozatuteko hamaika zita

Asier Abrisketa

Bedia, Lemoa, Zeanuri eta Zeberioko auzoetan San Lorentzo edo sanlontzoak, Igorren eta Zeberion Andra Mari jaiak, Bedian eta Diman San Roke, eta Zeberio eta Igorren San Bartolome dira gure auzoetako ermiten inguruan abuztuan zehar ospatuko diran jaietako batzuk.

BEDIA

San Lorentzo jaia.
Abuztuak 10, astelehena
12:00etan, mezea.
Gero, barauskarria eta trikitilariak.
17:00etan, Briska Txapelketea (bikotekide bat Bediako).

San Roke jaia.
Abuztuak 16, domekea
12:00etan, mezea.
Gero, trikitilariak.

DIMA

Olazabalgo jaiak.
Abuztuak 15, zapatua
12:30ean, Txakolin Eguna.
18:00etan, umeen jolasak: bits jaia eta urezko puzgarriak.
Gero, umeentzako baloiak eta txokolatea.

Abuztuak 16, domekea (San Roke)
11:30ean, mezea.
12:00etan, Umeen Bola Txapelketea.
13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea.
18:00etan, herri-kirolak 1979ko sokatira txapeldunak gogoratzuz.
20:00etan, errifen zozketea.

Abuztak 17, astelehena (San Roke txiki)
14:00etan, auzo bazkaria.

IGORRE

Udako jaiak.
Abuztuak 15, zapatua
13:00etan, mezea.
Gero, kalejireia herriko trikitilariakaz.
13:30ean, barauskarria.
17:00etan, Briska eta Mus Txa-

pelketak.
18:30ean, Igel Txapelketea.
19:00etan, umeentzako bits festa.
19:30ean, parrilladea.
20:00etan, kantaldia JtKantuz-egaz.

Urkizuko San Bartolome jaia.
Abuztuak 29, zapatua
12:00etan, mezea.
Gero, trikitilariak eta barauskarria.

Garamendiko San Antolin jaia.
Abuztuak 30, domekea
12:00etan, mezea.
Gero, trikitilariak eta barauskarria.

LEMOA
Azurrekako San Lorentzo jaia.
Abuztuak 10, astelehena
12:30ean, mezea.
13:00etan, barauskarria eta musikea.
13:30ean, erromeria.
18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.

ZEANURI
Uribe-Otzerinmendiko San Lontzo jaiak.
Abuztuak 10, astelehena
12:30ean, mezea.
Gero, barauskarria eta txistulariak.
18:00etan, bola-jokoa.
Gero, DJ Lander.

Abuztuak 11, martitzena
12:00etan, arimen aldeko mezea.
Gero, andra eta umeen bola-jokoa.
18:00etan, bola-jokoko finala.
Gero, urdaia eta txokolatea.

ZEBERIO
Elizondoko San Lontzo jaia.
Abuztuak 9, domekea
13:00etan, mezea.
Gero, barauskarria.

Zeberioganeko Andra Mari jaia.
Abuztuak 15, zapatua
13:00etan, mezea.
Gero, barauskarria.

Urizargo San Bartolome jaia.
Abuztuak 24, astelehena
13:00etan, mezea.
Gero, barauskarria.



Miren Nogales: "Ama, nik aktore izan gura dot"



Arteako eskolea

Arteako eskolako 3. zikloko ikasleak Zinema proiektua landu genduan. Aktore izateko prozesuari buruzko informazinoa lortu gura genduan, eta hau lortzeako Miren Nogales konbidau genduan gure gelara. Mireneri hainbat galdera egin geuntsazan eta hau da gure alkarrizketea.

Nortzuk lan egiten dabe pelikula bat grabetako?

Zerrenda amaituezina da. Pelikulea amaituten danean agertzen diran izen guztiak lan egin daben izenak dira. Hasikeran gidoi bat idazten da, hau da, gidoilari eta zuzendari bana dago, istorioa idazten dauana eta pelikulea zuzenduten dauana. Aktoreak be badagoz, baina euren lana atzenengoa da. Pelikula grabau eta montetan dabenak be badagoz, ordenagailuan sekuentziak ebagi eta honeek montetan ditue. Grabaketan bertan be produkzinokoak dagoz. Honeen lana eszenografia montetako behar dana lortzea da: altzariak, lekuak, aktoreak bilatzen ditue... Pelikula bat grabetako dirua behar da, eta hau, produktoreengandik lortzean da. Produktoreak enpresak edo personak dira, eta dirua ipinten dabe pelikulea egin eta gero pelikulak emondako irabaziak eskuratzeko. Badagoz guk pelikulea ondo entzuteko ardurea daukien langileak be: soinulariak. Horrezaz gainera, beste persona batzuk be lan egiten dabe: zuzendariaren laguntzaileak, aktoreen irakasleak, estrak, dobleak, ule-apaintzaileak, makilladoreak, jantza irakasleak, erropa arduradunak... Pelikula txikia bada, jente gitxi dago, baina pelikula handia bada, jente askok egiten dau lan proiektua aurrera aterateko. Batzuetan 150 persona baino gehiago.

Pelikula bat grabetan danean, zelan lortzean dira estrak?

Estra izaten ikasten da. Eskolak dagoz, goi mailako modulo bat modukoa da. Bertan, estra zelan izan, munstroak zelan egin, zauriak zelan sortu, kareta bereziak zelan egin... irakasten dabe. Nik hori ez dot ikasi, baina nire lagun batek, Amaia Urrestillak, horretan lan egiten dau. Eskola horreetan bikoizketak, efektu bereziak zelan erabili, personaiak zelan makillau... be ikasten da. Estrek holango gauzak ikasten ditue: min hartu barik zelan jausi, zelan erre... Aktorea jausi behar bada, momentu horretan beste persona sartzean da eta beste persona hori jausten da.

Zer da casting bat?

Castinga aktoreentzako lan-alkarrizketa bat da. Ingeniari batek edo arkitekto batek lana bilatzeko egin behar dauan moduan, aktorearen lan-alkarrizketea castinga da. Castinga oso sub-

jektiboa da, ez da hobeto edo txarrago egitea, faktore asko dagoz. Egunen baten casting batera bazoazie eta ezetz esaten badeutsue, ez pentsau txarto egin dozuelako dala. Edozein joan daiteke casting batera: irakasleak, zerbitzariak... ez da eze-lango baldintzarik bete behar.

Ze ikasketa behar da aktore izateko? Zuk non ikasi zenduan?

Danok izan gaitekez aktoreak. Oin dala urte asko ez egoan aktore izateko ikasketarik eta aktoreak beti egon dira. Nik Madrilen ikasi neban. Madrilen RESAD akademia dago: Real Escuela Superior de Arte Dramático. 400 persona apuntetan dira eta hortik 30 bakarrik hartzean ditue, 15 neska eta 15 mutil. Akademia horretan onartua izateko atal bi prestatu behar dira. Alde batetik, teorikoa, non antzerki liburuak irakurri eta horreen azterketea egiten dan. Eta gero, azterketa praktikoa. Urtebeteko prestaketea egin behar da azterketa praktikoko hori egiteko. Ez da notarik behar, baina hobeto da batxillerra eta selektibidadea egitea eta gero antzerkigintzea ikastera joatea. Eskola asko dagoz aktore izateko baina batez be Madrilen, Bartzelonan, Malaga edo Sevillan. Sevillako eskola gehienak pribaduak eta goi mailakoak dira. Oin, Bilbon antzerki eskola ofizial bat sortu gura dabe. Bere garaian bat egoan, baina titulazinoa kendu eutseen, eta oin barriz ipini gura dabe.

Ikasketa publikoa edo pribadua da?

Publikoak eta pribaduak dagoz. Publikoan sartzeko oin azaldu deusuedazan azterketak gainditu behar dira, eta Bartzelonako eskolan katalana jakin behar da. Eskola pribadu asko dagoz: Cristina Rota, Laboratorio Willian Layton, Juan Carlos Corazza estudioa eta La Cuarta Pared. Nik Willian Laytonen ikasi neban. Horreetan proba txiki bat egiten deusue ze maila daukazun jakiteko. Barruan hiru gela desbardin dagoz eta mailearen arabera gela batera edo bestera zoaz.

Zenbat balio dau antzerki eskola pribadu bateko matrikuleak?

Nik ikasi nebanean, oin 15 urte, hilebetero 275 euro ordaintzen ziran. Horrezaz gainera, Madrilen bizi, Madrilan jan, Madrilan lagunakaz urten... diru asko da.

Zu zenbat urtegaz hasi zinan aktore izaten?

Ni bederatzi urtegaz hasi nintzan. Zestoako eskolako antzerkian. Hor egin neban lehenengo antzerkia, Zestoako jente guztiaren aurrean. Amaitzerakoan, amarengana joan nintzan eta esan neutsan: "Ama, nik aktore izan gura dot". Hortik aurrera horregaz jarraitu neban aktore izan arte.

Ze euskal aktore ezetuten dozuz?

Ander Rovira, Sua Enparantza, Itziar Atienza, Jon Olivares, Aitziber Garmendia, Dorleta Urretabizkaia, Itziar Ituño eta Irabazi arte zein Goazen!-eko aktore ia danak...

● BIZKAIKO ERROMERIA EGUNA

Badagoz salgai Lemoako Bizkaiko Erromeria Eguneko bazkarirako txartelak

Asier Abrisketa

Lemoan izango da aurtengo Bizkaiko erromerien formatu guztien topagunea urri bi-garrenaren 17an eta Arlonagusiako karpa handian 15:00etan egingo dan bazkarirako txartelak salgai dagoz daborduko *erromeriaeguna.eus* webgunean. Hiru menu dagoz aukeran: helduentzako haragizko edo barazki menua (18 euro) eta umeentzako menua (12,50 euro). Bazkalostea Eingoren eskutik gozatuko dabe bertaratutakoek.

Bizkaiko Erromeria Eguna erromerien formatu eta estilo guztiak batuko ditu. Korrontzi, Lorratz, Ene Kantak, Eneritz eta Edurtzeta, Kittu, Harribitxi, Matraka elektrotxarangea, Lehian, Argitu, Zirkirik Bez eta Trikizio igongo dira ohol-tzara. Baina egunean zehar be, egongo dira herri-kirol erakustaldiak, erraldoi eta buruhandiak, gaiteroak, albokariak eta kantu zein jantza ikastaroak. Arratiakoak be egongo dira sano presente jaialdian: Mendieta Herri Kirol Taldea, Durundi Barri eta Arantzarte jantza taldeak, Arratiako Musika Eskolea, Eingo, Merhezi...



● AREATZAKO BANDA

Magiagaz be ausartuko da Areatzako Bandea



Areatzako Bandak eta Hodei Magoak ikuskizun bateratua eskainiko dabe Areatzako jaietan.

Asier Abrisketa

Areatzako jaietako atzenengo domekan, abuztuak 30, ikuskizun sano berezia egongo da ikusgai 21:00etatik aurrera. Izan be, Areatzako Bandak eta Hodei Magoak *Magic Melody* emonaldia eskainiko dabe, zuzeneko musikea eta magia buztartuta. Aritz Labrador bandako zuzendariak ikuskizun bakarra prometidau BEGITUN: "Hodei nahiko monologistea be bada eta bere

ikuskizuna lagunduko dogu, baina izango doguz guretzako momentuak be".

Ikuskizuna magia emonaldi klasiko baten eta kontzertu baten arteko zeozer izango da. Hodeiren truketan, ikusleen parte-hartzea egongo da baina baita Areatzako Bandako kideena be. Bitartean, musikariek trukuak girotuteko musikea eskainiko dabe, magia oindino be ikusgarriago eginda. Horrezaz gainera, danetariko kantak be joko ditu Areatzako Bandak.

● GORBEIA

Gorbeiako kurutzearen eregileak omendu dabez, lehenengo kurutzearen 125. urteurrenean

1901eko zemendiaren 12an inaugurau zan Gorbeiako lehenengo kurutzea.

Asier Abrisketa


1900. urteko jubileu erromatarrari jarraituta, Juan Bartolome de Alci-bar Zeanuriko parrokoark, Casto de Zavala Ellacuriaga arkitekto elorriotarrak eta Serapio Goicoechea Palacios Barakaldoko enpresari eta alkateak Gorbeian kurutzea al-tzetea ebatzi eben. Garagarilaren 21ean, hirurak omendu ebezan Bilboko Foru Liburutegian Iñaki Garcia Uribe etnologo eta mendi-zaletasunaren ikerlariak antolatuta-ko ekitaldixuan. Lehen kurutze haren eregileak omenduteko, eu-ren oinordekoek be hartu eben parte eta Gontzal Mendibilek mu-sikea ipini eutsan ekitaldi xumeari. Lehenengo kurutze harek 33 metroko altuerea eukan, Kristo hil zaneke adina, bere momentuan kristautasunak altxautako kurutze-rik handiena izan zalarik. "Planeta osoan ez zan halango ezebez al-tzau, antzekorik bez", inoan Iñaki Garciak. Goicoechearen tailerre-tan egin ziran kurutzearen zatiak eta hau montetako, langileak hiru



hilez egon ziran bertan lo egiten, artzainek prestatutako zulo ba-ten. Kurutze haren argazki baka-rra gordeten da, eta hau ikusgai egon zan ekitaldian. Izan be, hai-ze boladek hilebetera bota eben lehenengo kurutze ha. Gaurkoa, hirugarren kurutzea da.

Sinbolo baten oharkabeko urteurrena
Halanda be, Iñaki Garcia mendi-

zaletasunaren ikerleria arduratuta agertu zan, urteurren hau oharka-bean joan daitekela. 2001ean, mendeurrena gogoratuteko 36 jarduera egin ziran -ekitaldiak, eskulturak, berbaldiak...- Arabako zein Bizkaiko foru aldundien aurrekontu garrantzitsuakaz; oin-goan barriz, urteurrenerako 100 egun baino gitxiago faltau dira-nean, ez dakigu ekitaldirik egingo dan.



Gorbeiako lehenengo kurutzearen argazki bakarra (1901). CAPXULAR artxiboa Iñaki García Uribe.

● AGENDEA

ABUZTUAK 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

11:00etatik 20:00etara, ugerlekuak egunero zabalik. Urri lehenengoaren 13ra arte.

Urri lehenengoaren 20ra arte, Areatzako Mendi Martxarako (urri bigarrenak 3) izen-emotea *rockthesport.com* webgunean.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Urri lehenengoaren 25era arte, bialdu daitekez argazkiak *BEGITUREN* Udako Argazki Lehiaketarako *begitu@begitu.eus* helbidera.

ARTEA

Zapatu eta domeketan, bisita gidatuak Ailarak-Musiktopa bisitetako. Zapatuetan: 11:00etan euskeraz, 12:30ean gazteleraz eta 17:30ean euskeraz. Domeketan: 11:00etan euskeraz eta 12:30ean gazteleraz. Ez da izenik emon behar.

DIMA

Abuztuaren 24ra arte, udaleku irekietarako (abuztuak 31-urri lehenengoak 4) izen-emotea *kultura.dima@bizkaia.org* helbidean edo 94 631 57 25 zein 685 759 997 telefonoetan.

Urri lehenengoaren 4ra arte, 2026-2027 kursoko ikastaroetarako izen-emotea *kultura.dima@bizkaia.org* helbidean edo 94 631 57 25 zein 685 759 997 telefonoetan.

Urri lehenengoaren 14ra arte, urri bigarrenetik martiara aisialdiko begirale ikastarorako izen-emotea *eskola@urtxintaeskola.eus* helbidean edo 94 432 04 45 telefonoetan.

Abuztuaren 6an Axlorreko arkeologia-indusketea bisitetako izen-emotea 685 759 997, 94 631 57 25 telefonoetan edo *harrera.dima@bizkaia.org* helbidean.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

11:00etatik 19:30era, ugerlekuak egunero zabalik. Urri lehenengoaren 6ra arte.

Urri bigarrenaren 17an ospatuko dan

Bizkaiko Erromeria Eguneako bazkarirako txartelak salgai *erromeriaeguna.eus* webgunean (helduentzako haragizko edo barazki menuak 18 euro eta umeentzako menuak 12,50 euro).

Zemendiaren 8ra arte, X. Lemoatz Traileko (zemendiak 15) martxa eta lasterketetarako izen-emotea *buscametas.com* webgunean.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Urri lehenengoaren 10era arte, Ubideko Bira mendi martxarako (urri lehenengoak 12) izen-emotea *kronoak.com* webgunean.

ZEANURI

Batziler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHkoentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

ABUZTUAK 4
AREATZA

10:00etan, Jai Batzordeko txosnea montetako deialdia herritarrei. Ludotekan.

ABUZTUAK 6
DIMA

11:00etan, Axlorreko arkeologia-

indusketan ate irekiak (izen-emotea 685 759 997, 94 631 57 25 edo *harrera.dima@bizkaia.org-en*). Zamakolako aparkalekuan.

ABUZTUAK 9
ZEBERIO

Elizondoko San Lontzo jaia. 13:00etan, mezea; gero, barauskarria.

ABUZTUAK 10
BEDIA

San Lorentzo jaia. 12:00etan, mezea; gero, barauskarria eta trikitilariak; 17:00etan, Briska Txapelketea (bikotekide bat behintzat Bediakoa).

LEMOA

Azurrekako San Lorentzo jaia. 12:30ean, mezea; 13:00etan, barauskarria eta musikea; 13:30ean, erromeria; 18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.

ZEANURI

Uribe-Otzerinmendiko San Lontzo jaia. 12:30ean, mezea; gero, barauskarria eta txistulariak; 18:00etan, bola-jokoa; gero, DJ Lander.

ABUZTUAK 11
ZEANURI

Uribe-Otzerinmendiko San Lontzo jaia. 12:00etan, arimen aldeko mezea; gero,

andra eta umeen bola-jokoa; 18:00etan, bola-jokoko finala; gero, urdaia eta txokolatea.

ABUZTUAK 13
ZEANURI

Zeanuriko jaietako bezperea. 18:00etan, Zeanuriko Frontenis Txapelketako finalak; 22:00etan, herri afaria norberak eroandakoagaz.

ABUZTUAK 14
ZEANURI

Zeanuriko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

ABUZTUAK 15
DIMA

Olazabalgo jaiak. 12:30ean, Txakolin Eguna; 18:00etan, umeentzako jolasak: bits jaia eta urezko puzgarriak; gero, umeentzako baloiak eta txokolatea.

IGORRE

Udako jaiak. 13:00etan, mezea. Gero, kalejirea herriko trikitilariakaz; 13:30ean, barauskarria; 17:00etan, Briska eta Mus Txapelketak; 18:30ean, Igel Txapelketea; 19:00etan, umeentzako bits festa; 19:30ean, parrilladea eta 20:00etan, kantaldia JtKantuz-egaz.

ZEANURI

Zeanuriko jaiak. Ikusi 7. orrialdea. 02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa, autobus geraldian.

ZEBERIO

Zeberioganeko Andra Mari jaia. 13:00etan, mezea; gero, barauskarria.

ABUZTUAK 16
BEDIA

San Roke jaia. 12:00etan, mezea; gero, barauskarria eta trikitilariak.

DIMA

Olazabalgo jaiak. 11:30ean, mezea; 12:00etan, Umeen Bola Txapelketea; 13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea; 18:00etan, herri-kirolak 1979ko sokatira txapeldunak gogoratuz; 20:00etan, errifren zozketea.

ZEANURI

Zeanuriko jaiak. Ikusi 7. orrialdea.

ABUZTUAK 17
DIMA

Olazabalgo jaiak. 14:00etan, auzo bazkaria.

ABUZTUAK 21
AREATZA

Ernaik antolatutako Arratieko Iluntze Antifaxista. 19:00etan, *Faxismoari ez, Euskal Herria irabaztera!* berbaldia Joseba Ugalde eta Elur Zarragagaz; 20:30ean, agerraldia; 21:00etan, afaria. Plazan.

IGORRE

Urri lehenengoaren 13an Ernaik Donostian deitutako manifestazinora joateko autobuserako izen-emotea. Axular Herriko Tabernan.

ABUZTUAK 22
IGORRE

Futbola (gizonezkoak). XXXVIII. Igorre Saria Urbietan. 17:00etan, Arratia-Eibar C; 18:00etan, Erandio-Eibar C; 19:00etan, Arratia-Erandio eta 20:00etan, sari banaketeta.

ABUZTUAK 23
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

ABUZTUAK 24
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

ZEBERIO

Urizargo San Bartolome jaia. 13:00etan, mezea; gero, barauskarria.

ABUZTUAK 25
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

ABUZTUAK 26
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

ABUZTUAK 27
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

ABUZTUAK 28
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa, autobus geraldian.

ABUZTUAK 29
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

IGORRE

Urkizuko San Bartolome jaia. 12:00etan, mezea; gero, trikitilariak eta barauskarria.

ABUZTUAK 30
AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi 5. orrialdea.

IGORRE

Garamendiko San Antolin jaia. 12:00etan, mezea; gero, trikitilariak eta barauskarria.

ABUZTUAK 31
DIMA

Udaleku irekiak goizez 2013 eta 2021 urteen artean jaiotakoentzat urri lehenengoaren 4ra arte.



KOMIKIA

Gepeto



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

ERIZAINAK ETA

GEROKULTOREAK BEHAR DIRA

Erizainak eta gerokultoreak topetan gabiz Dimako egoitzarako. Lanpostuak eskuragarri. Bidali CVa edo WhatsApp bidez jarri hartu-emonetan, edo deitu 627 128 634 telefonora.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerako, irailetik aurrera. Interesa euki ezkerro, bidali mezu bat edo deitu 633 530 925 telefonora.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Exploratzailaren marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo

ikusteko deitu: 670 825 753.

LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantziarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua: 608 062 592.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI

Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

ANTXUME EDO AUMAK SALGAI

Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatza Musik and Beer jaialdiko txapela eta boltsea.

Eguzkiñe Zuluaga (Dima)
Gotzon Aurrekoetxea (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUk 24 urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Dia % PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel. 94 673 70 87
Tel. 609 79 40 54

ZEKUTZE JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IKORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TUF. 94 631 92 00

GORBEIALDE LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

BEGITU

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
-Baita eta beste...
-Salmentan zein alokairuan...
-Lurrik (erakutsia, landat, basat...)
-Etxebizitzak (pisoak, baserriak, etxeak...)
-Gardjeak
-Lanari komertzioak
-Pabiloiak...
-Bolonarioak
-Erakiri berrak erakitzeko
-Enfomak
-Arkitekture-proiektuak
-Bare diseinua
-CEE eta IFE-ak
-Hirigintza aholkularitza
-Negozioak irekitzeko kudeaketa



BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.